

MIREN MATIAN
MIREN EN MATIA

MATIA
Zaleak



©COPYRIGHT MATIA FUNDAZIOA
código registro 1912102653321

©AUTOREAK / AUTORES
IÑAKI SAINZ DE MURIETA
MARIA ETXEBERRIA
AMAIA ARISTEGUI
CARMEN RUIZ
ARANTXA I.

©ILUSTRATZAILEA / ILUSTRADORA:
SOFIA HERBÓN

MATIA
Zaleak

deposito legal: SS-01370-2019
ISBN: 978-84-09-17338-9

www.matiazaleak.eus
www.matiafundazioa.eus

Editado por Matia Fundazioa - MatiaZaleak

Fotocopiar este libro o ponerlo en red libremente sin la autorización de los editores está penado por la ley.

Todos los derechos reservados. Cualquier forma de reproducción, distribución, comunicación pública o transformación de esta obra solo puede ser realizada con la autorización de sus titulares, salvo excepción prevista por la ley.

Dirijase a Matia Fundazioa. Camino de los Pinos 35- Donostia 20018

MIREN MATIAN

MIREN EN MATIA

Heldu da larunbata! Gora! Gaurkoa oso egun berezia da, nire ikastolako klasekideekin Matia Fundaziora noa eta, nire amoña eta bere lagunak bisitatzera. Ikastolan erreportai bat egitea eskatu digute eta ideiarekin erabat txoratuta nago. Gainera, astero joaten naizenez ikustera, anfitrioiarena egitea tokatzen zait. Aupa!



¡Ya ha llegado el sábado! ¡Viva! Hoy es un día muy especial, porque voy a Matia Fundazioa con mis compañeras de clase, para visitar a mi abuela y a sus amigas. En el colegio nos han pedido hacer un reportaje y estoy súper emocionada. Además, como suelo ir a verla todas las semanas, me toca hacer de anfitriona. ¡Yupi!



Bisitatu nuen azken aldian, nire adinekoa zeneko hainbat haur-jolas erakutsi zizkidan. Kinaz hitz egin zidan, bingoaren antzekoa den mahai-jolasa, tortolozetaz, tokaz eta abagunean jokatzeko zuten beste hainbat gauzetaz. Hori gutxi balitz, berak zuen bezalako diaboloa oparitu zidan! Ezin asmatu zein polita den!



La última vez que la visité, me enseñó varios juegos a los que ella jugaba cuando tenía mi edad. Me habló de la kina, que es muy parecida al bingo, de las tabas, de la toka y de otras muchas cosas a las que jugaban cuando tenían ocasión. ¡Incluso me regaló un diábolo como el que ella tenía! ¡No sabéis lo bonito que es!



Ikus dezakezuenez, Lugaritzeko topoaren geltokian geratu gara, handik oinez hurbildu ahal izateko. Denok gaude, Ane izan ezik. Nire amari iritsi zaion mezuaren arabera, badirudi gaur berandu samar irtengo dela igeriketa-ikastarotik. Beraz, itxoiten dugun bitartean, hobe dugu hemen ondoan dagoen parkera jolastera joatea. Amak beti esaten dit ez dela osasungarria luzaroan geldirik egotea; bizitza aktiboa izan behar dugula osasun ona izateko.



Como podéis ver, hemos quedado en la estación del topo de Lugaritz, para ir andando tranquilamente desde allí. Estamos ya todas menos Ane. Parece que hoy va a salir algo tarde de natación, porque le ha llegado un mensaje de aviso a mi ama, así que, mientras esperamos, iremos a jugar al parque de aquí al lado. Ella siempre me dice que no es bueno estar parada mucho rato, que hay que estar activa para gozar de buena salud.



Barruan gaude! Ikaragarria da, ezta? Gela bakoitza norberaren gustuen eta beharren arabera egokituta dago, jangelako menua bezala, pertsona bakoitza berezia eta paregabea baita.

Dakizuenetz, lagunak eta familiak bisitan etortzen dira, bai eta pertsona gazteak ere, adinekoen konpainiaz gozaten dutenak, egunero haiekin ikas dezaketelako. Hori bai zortea! Horretaz gain, batzuek konpainiako animaliak ere badituzte! Besterik eskatu al daiteke?



¡Ya estamos dentro! Es impresionante, ¿verdad? Las habitaciones están todas personalizadas según los gustos y necesidades de cada persona, como también lo está el menú del comedor, porque cada persona es especial y única.

Vienen de visita amistades y familias, y también gente joven que colaboran y disfrutan de la compañía de los mayores, con la suerte de que pueden aprender con ellos cada día. ¡Y algunos incluso tienen animales de compañía! ¿Qué más se puede pedir?



Begira! Hor da nire amoña! Ines du izena. 90 urte ditu eta energiaz beterik dago egunero nahi duena egiteko.

—Kaixo Miren! Zure lagunak al dira? Zein jatorrak diren! Sartu nere etxera. Egunerokoan laguntzen diguten neskek prestaturiko galletak eta txokolate beroa dugu zuentzat.

—Hara! Zein gela polita duen zure amoñak! Denetarik dauka! Sukaldea eta guzti!

—Esan nizuen, ba, baina sinestu ez.

¡Mirad! ¡Ahí está mi abuela! Se llama Inés. Tiene 90 años y muchísima energía para hacer lo que se propone.

—¡Hola, Miren! ¿Son estas tus amigas? ¡Qué majas son! Entrad a mi casa. Tenemos galletas y chocolate caliente que nos han preparado las chicas que nos acompañan en el día a día.

—¡Hala! ¡Qué habitación más guay tiene tu abuela! ¡Tiene de todo! ¡Hasta cocina!

—Ya os lo había dicho. Pero no me creáis.



—Eser zaitzete gurekin eta azaldu, mesedez, zer dela eta elkarrizketatu nahi gaituzue?

—Egia esan, oraingo honetan ikastolarentzat egin behar dugun talde-lana da.

—Hori bai ideia ona! Badakizue gu ere ikastolara joan ginela? Duela urte asko izan zen, gerra aurretik. Ni Etxaide kalean zegoen ikastolara joaten nintzen, beraiek Grosekora joaten ziren bitartean. Gero, dena zaildu egin zen. Gerra hasi eta askok beste herrialde batzuetara ihes egin behar izan zuten.

—Sentaos con nosotras y decidnos, ¿cómo así que queréis entrevistarnos?

—Es que, en esta ocasión es un trabajo para el colegio.

—¡Qué buena idea! ¿Sabéis? Nosotras también fuimos al colegio. Fue hace muchos años, antes de la guerra. Yo iba a la de la calle Etxaide, mientras que ellas iban a uno del barrio de Gros. Luego, todo se complicó. Estalló la guerra y muchos tuvieron que huir a otros países.



—Beste herrialde batzuetara?

—Hala da, bai. Errusia, Frantzia edo Ingalaterra bezalako herrialdeak. Zuk ez zenuen ezagutu, baina nire anaietako bat hara joan zen. Hiru urte eman zituen kanpin-denda batean bizitzen, beste ehunka haurrekin batera. Oso gaizki pasatu zuen, baina, behintzat, ez zituen gerraren estuasunak bizi behar izan.



—¿A otros países?

—Así es. Países como Rusia, Francia, Inglaterra... tú no lo llegaste a conocer, pero uno de mis hermanos fue allí. Estuvo tres años viviendo en una tienda de campaña, junto a otros cientos de niños. Lo pasó muy mal, pero al menos no tuvo que vivir los estragos de la guerra.



—Horren latza izan al zen?

—Uf! Gerra izugarria izan zen, baina okerragoa izan zen ondoren etorri zena. Gose handia pasatu genuen, benetan. Gauza askoren beharra zegoen.

Ez zen erraza izan, ez. Lan asko egin behar izan genuen denok. Askatasun eta eskubide falta handia zegoen. Orain askatasunez egiten dituzuen gauza asko ezin genituen egin, adibidez euskaraz hitz egin.



—¿Tan duro fue aquello?

—¡Uf! ¡No lo sabéis bien! La guerra fue terrible, pero fue peor lo que vino después. Pasamos mucha hambre, mucha. Y había necesidad de muchas cosas.

No fue fácil, no. Todos tuvimos que trabajar mucho. Había mucha falta de libertades y derechos. Muchas de las cosas que ahora hacéis libremente, antes resultaba impensable hacerlas, como por ejemplo hablar en euskera.



—Benetan?

—Bai, Miren, bai. Orain daukazuen zortea da aske ikasi eta bizi zaitezketela. Aprobetxatu behar dituzue gaur egun dituzuen aukerak, hainbat lagunon borroka eta temakeriari esker lortutakoak.



—¿En serio?

—Sí, Miren, sí. La suerte que tenéis ahora es que podéis aprender y vivir en libertad. Aprovechar las oportunidades que tenéis y por las que tantas personas luchamos.



—Arrazoi hauengatik nire amak urte asko pasa zituen Frantzian etxera itzuli ahal izan arte.

Bitarte horretan nire amaña izan zen nitaz arduratu zena. Lolita deitzen zen. Asko maite nuen, amatxo bat bezala zen niretzat.

Ba al zenekien nire amak Balentziagarentzat lan egin zuela bere tailerrean?



—Mi madre por estos motivos pasó muchos años en Francia hasta que pudo volver a casa.

Mientras tanto, fue mi abuela la que se ocupó de mí. Lolita se llamaba. La quería muchísimo, como a una madre.

¿Sabíais que mi madre trabajó para Balenciaga en su taller?



—Ni, aldiz, musikaria izan naiz nire bizitza guztian. Zorionez, hau nire etxea denez, nirekin ekarri nuen pianoa, eta hori bihotzez eskertzen dut. Horrela, nahi dudanean, jotzen jarri naiteke.

Izan ere, niretzat, ez dago sentrazio hoberik pieza on bat jotzea baino, gainerakoak liburu on bat irakurtzen ari direlarik, nahiz eta e-book bat izan, edozein tokitik internetera konektatzen diren horietakoa. Niretzat, hori da zoriona!



—Yo, en cambio, he sido músico toda mi vida. Como esta es mi casa, traje el piano conmigo, cosa que agradezco muchísimo. Así puedo seguir tocando siempre que quiero.

Y es que, para mí, no hay mejor sensación que tocar una buena pieza mientras el resto lee un buen libro, aunque sea en un e-book de esos con el que se conectan a internet desde cualquier rincón. Para mí, ¡eso es la felicidad!



—Ene! Miren, begira zure ama. Ematen du alde egin behar duzuela. Aurpegi hori jartzen duenean, seinale txarra izaten da.

—Ezin gara gehiago geratu?

—Tamalez, ezin da. Aneren etxean bazkaltzeko geratu gara eta ezin gara berandu iritsi. Nahi baduzue, bihar itzuli gaitezke. Ondo iruditzen zaizue?

—Bai!

—Eta besoak zabalik itxarongo zaituztegu. Laster arte izango da. Agur!

—¡Ayayay! Miren, algo me dice que os tenéis que marchar ya. Mira a tu ama. Cuando pone esa cara, mala señal.

—¿No podemos quedarnos un rato más?

—Me temo que no. Hemos quedado para comer en casa de Ane y no podemos llegar tarde. Si queréis, podemos volver mañana. ¿Os parece bien?

—¡Sí!

—Y nosotras os esperaremos con los brazos abiertos. Será hasta pronto. Agur!



Ipuin hau zuretzat da, zeren eta gure bizian garrantzitsuak izan diren gauza batzuen inguruan hitz egin nahi dizugu, ezagutzera emateko eta ez daitezen galdu. Iñaki eta Sofiak lagundu digute zuretzako hau prestatzen.

Disfrutatu, izan curioso eta galdetu zure familia, laguneri... Historiak aberasten gaitu eta gure zati bat da.

Este cuento es para ti, porque queremos hablarte de algunas cosas que han sido importantes en nuestras vidas, queremos que las conozcas y que no se pierdan. Iñaki y Sofia nos han ayudado a preparar esto para ti.

Disfruta, sé curioso y pregunta a tu familia, amigos... La historia enriquece y forma parte de cada uno de nosotros.

Maria, Amaia, Carmen y Arantxa

MATIA
Zaleak

MATIA
FUNDAZIOA

Kolaboratzailea
Colaborador



www.matiazaleak.eus